



# 02

# mesanotxean

## Emantzipazioa eta norberaren autonomia

*"Mesanotxean" izenburupean Gipuzkoako Foru Aldundiak kaleratzen duen e-GAZTEMIRA buletin elektronikoaren monografikoen bilduma da. Bertan Gipuzkoako haur eta gazteria politikekin zerikusia duen gairen bat jorratzen da hiru hilabeteen behin.*

*Eginkizun horretarako, "Gazte faktoria berritzegunea" izeneko enpresaren laguntza teknikoa dugu "Mesanotxean" bildumaren edukiak prestatzeko orduan, GFAko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuaren zuzendaritzapean.*



**mesanotxean**

# mesanotxean 02

**Izenburua:** Emantzipazioa eta norberaren autonomia

**Egileak:** Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Gazte Faktoria:** Joxe Jimenez eta Olatz Miranda (edukien laguntzailea)

**Bilduma:** Mesanotxean. Haur eta Gazteria politiken monografikoa

**Bildumaren koordinazioa:** Edorta Bergua (GFA) eta Joxe Jimenez (Gazte Faktoria)

**Diseinua eta maketazioa:** Gazte Faktoria Berritzegunea eta IPAR Komunikazio Grafikoa

**Hizkuntz aholkularitza:** Maramara Taldea

© Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia. Gizarte Politikako Departamentua  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**Argitaraldia:** 2009ko Abendua

# Aurkibidea

## Oinarrizko dokumentua:

Gaztematikak duen lekua

Gazteriaren Euskal Legearen aurrean

orrialde 4/13

## Proposamenen dokumentua:

Irizpideak eta ekintza ildoak

orrialde 14/18

## Tresnak

Gaiari buruzko gehiago jakiteko...

orrialde 20/21

# Oinarrizko dokumentua:

Emantzipazioa eta norberaren autonomia

## Norberaren autonomiaren eta emantzipazioaren bidean ez galtzeko zerbitzuak

Autonomia eta emantzipazio kontzeptura hurbiltzeko, Sven Morchek gazteen «indibidualizazio biografikoa»ren garrantzia bikoitzaz egindako ekarpenari helduko diogu<sup>1</sup>. Gazteen bizitza, bilakaera ebolutiboaren eta indibidualizazioaren arteko erronka bikoitza da, etengabe aldatzen ari den gizartean. Batetik, analisi psikologikoa, haur izatetik heldu izateko trantsizioaz arduratu da, aldaketa horizontalaz, hain zuzen; bestetik, soziologiak, gizarte baldintza zehatzak identifikatzen ditu prozesu honetarako, aldaketa bertikala deitzen dena. Azterketa honetan ikusi dugunez, autonomia/emantzipazio kontzeptua ikuspegi psikosozial bikoitz horretatik aztertu beharra dago.

Emantzipazio prozesuek jada ez diote jarraitzen ohiko ereduari, hau da, *gazte bat, mutilak neskak baino gehiago, helduen munduan sartzeko era linealari: karrera profesionala, lana, ezkontza, etxebizitza eta familia*<sup>2</sup>. Sven Morchek mahaigaineratutako teoriziotik ondoriozta dezakegu «*gaur egun gazteen bizimodua ez dela zuzenean helduarora doan bidea, baizik eta bere baitan garrantzia duen garai luzea*». Hau da, gazte izatetik heldu izaterako pausoa zeharkakoa bilakatu da (ez lineala). Gainera, zenbait pertsonarentzat gazte garaia gizarte ideala bilakatu da. Baita, bizi gutxirako bizitzeko era egokia ere. Dena den, azken urteetan, gazteen garapenari erreparatuz gero, ikusten dugu helduen bizimoduarekin gero eta zerikusi gutxiago duen bizitzaren atal gehiago» dituela<sup>3</sup>. Gazteen bizimodua gero eta independenteagoa da, autoerreferentzia gehiago ditu eta autonomoagoa da.

Trantsizio ez linealeko egoera hori arazo gehiago sortzen ari zaie gazteei beren erreikuspeneak beteko dituzten banakako ibilbideak garatzeko orduan. Galdera bat dator kie burura: Zer egin beharko dugu orain, heldutakoan arrakasta izateko? Badirudi, bizitza *moderno ez zuzenaren* erronka helduaroan erabili ahal izateko ahalmen egokiak lortzea dela. Baina horietatik garrantzitsuenak zein diren jakitea da kontua, norberaren autonomiaren garapenerako prozesua babesteko eta gazteari bere plangintza indibiduala diseinatzen eta betetzen lagunduko dioten politikak sortzeko.

Une honetan, ezarritako helburua gazte bakoitzak hautatzen duen norberaren autonomiarako bideak garatzea da, eta horregatik interesgarria izan daiteke autonomiaren eta emantzipazioaren puzzlea osatzen duten piezak zeintzuk diren sakon aztertzea. Orain dela urte gutxira arte erabili izan den emantzipazio kontzeptuak hiru alderdi besterik ez zituen biltzen: lana, etxebizitza eta heziketa<sup>4</sup>. Gaur egun, gazteentzako politikek *gazteen tokia zabaltzen dute beren eskakizun eta beharren arreta orokor eta osoei dagokienez, baina gaztea bizitza eta eraldaketa proiektu gisa ere hartzen dute, izan ere, bere erreikuspenei, ilusioei eta bere emantzipazio eta autonomiari arreta jartzen zaie*<sup>5</sup>. Ikus-

1. Morch, Sven. *Joventut i autonomia. Algunas consideraciones básicas*. [linean]. XXVI Jornades: Politiques locals per l'autonomia i l'emancipació topaketak. Diputació de Barcelona. Sabadell, 2008ko maiatzaren 21a. <<http://www.diba.es/joventut/fitxers/2008svenmoerch.pdf>> [kontsulta: 2009ko Urriaren 22a].

2. *Oficina Municipal de Emancipación Joven*. Informe inédito. Zaragoza: [s.n.], 2008. 13 p. Informe técnico de la oficina del Plan Joven del Ayuntamiento de Zaragoza.

3. Morch, Sven. *Joventut i autonomia. Algunas consideraciones básicas*. [linean]. XXVI Jornades: Politiques locals per l'autonomia i l'emancipació topaketak. Diputació de Barcelona. Sabadell, 2008ko maiatzaren 21a. <<http://www.diba.es/joventut/fitxers/2008svenmoerch.pdf>> [kontsulta: 2009ko Urriaren 22a].

4. Zarraga, Jose Luis. *Informe juventud en España 1984: la inserción de los jóvenes en la sociedad*. Madrid: Instituto de la Juventud, 1985.

5. *Oficina Municipal de Emancipación Joven*. Informe inédito. Zaragoza: [s.n.], 2008. 13 p. Informe técnico de la oficina del Plan Joven del Ayuntamiento de Zaragoza. .

pegi berri horrek, autonomia pertsonalean eman beharreko erantzunen aukera zabaldu egiten du; psikologia, osasuna, hezkuntza, sexualitatea, eskubideak, mugikortasuna eta beste zenbait arlotako erantzunak ematen ditu.

Zalantzarik ez dago bizimodu independentea hastera une erabakigarria edozeinentzat. Kontua da, bizitzan emantzipatzeko ezinbestekoa dela elkarren artean gurutzatutako zenbait erabakitze prozesutatik pasatzea: «*diru-sarrera iturri propioa izatea, emantzipazio ekonomikoaren azpiprozesua errazteko eta norberaren etxebizitza edo egoitza izateko, familiaren etxetik alde egitea erraztuko duena eta sarritan jatorrizko familiarengandik aldentzeko pixkanakako emantzipazio emozionalarekin eta bikote bizitza berri bat hasterekin lotuta doana*<sup>6</sup>». Ez da beti erraza izaten erabakitzea. Horregatik, emantzipazio prozesu guztiak ez dira azkarrak izaten. Osagai komunetatik hasita, hala nola, lana, etxebizitza eta hezkuntza, gerta liteke aldeko testuinguru sozioekonomikoa badago, emantzipazio prozesuaren iraupena gutxitzea. Baina, ezin ahaz dezakegu gazteentzako heldutasun psikologiko eta emozionalaren helburua ezinbestekoa bezain materiala bilakatu dela. Horregatik, gazteak hiru baldintza horiek erabat beteta daudela uste duenean, emantzipaziorako pausoak emango ditu.

Garai batean jarraitu beharreko ibilbidea oso nabarmena bazen ere, ibilbide eredu berrietan ez dago helmuga bakar bat eta helmuga aukera desberdinek ematen duten zailtza egoera zabaldu egiten da. Bestalde, bada biztanleen artean oso hedatua dagoen beste axioma bat: pentsatzea egoera sozioekonomikoa zela independizatzeko unea erabakitzen zuena. Baina, zenbait azterketa eta estatistikak erakutsi dutenez adina faktore erabakigarria da emantzipatzeko unea erabakitzerakoan. "Azpimarratzeko datua da, OB-JOVIn ustez<sup>7</sup>, Gipuzkoan, 25 eta 29 urte arteko tartean, erdiak baino gehiagok gurasoen etxean jarraitzen duela bizitzen eta ez duela asmorik bertatik berehala ateratzeko.

Gure lurraldearen egoera ulertzeko hausnartu beharreko bidea adierazten digun ondorioetako bat Joaquim Casalek adierazitakoa da<sup>8</sup>: «*emantzipazioa hiru alderditatik aztertzea komeni da: soziala, soziologikoa eta politikoa. Hiru alderdi horien batura konstruktiboa eta argigarria izan daiteke, batez ere, kontu horrek irtenbide linealik ez duela ikusteko*». Bere tesian emantzipazioaren ibilbide linealaren kontzeptu klasikoa agortzen ari dela adierazten du (hezkuntza-lana-etxebizitza-bikotea). Autonomia pertsonalerako (psikologikoa, emozionala, osasuna, mugikortasuna...) eta emantzipazio ekonomikoaren eta familia emantzipazioaren bidean ibilbide paraleloak dituen eredu aurkezten du.

Datu horiek erakusten dute *gazteak pixkanaka hurbiltzen direla haiek aurreikusitako helburuetara. Gurasoek baldintza material antzekoak ziurtatu nahi dituzte, eta horri erantsi behar zaio norberaren autonomiarako nahikoa ahalmen ere izan nahi dutela. Horrek guztiak ondorio honetara eramaten gaitu: autonomia/emantzipazio **eredu berria** gaur egun gure artean dagoena, berantiarra, heldua eta hausnartutakoa dela.*

6. *Oficina Municipal de Emancipación Joven*. Informe inédito. Zaragoza: [s.n.], 2008. 13 p. Informe técnico de la oficina del Plan Joven del Ayuntamiento de Zaragoza.

7. *Euskadiko txostena- 2009ko lehen hiruhilekoa*. Espainiako Gazteen Etxebizitza Behatokia. Madrid: Consejo de la Juventud de España, 2009. Madrid: Espainiako Gaztediaren Kontseilua.

8. Casal, Joaquim – GRET. *L' emancipació dels joves com a qüestió social, sociològica i política* [lineal] XXVI Jornades: Politiques locals per l' autonomia i l' emancipació topaketak. Diputació de Barcelona. Sabadell, 2008ko maiatzaren 21a. <http://www.diba.es/joventut/fitxers/2008joaquimcasal.pdf> [kontsulta: 2009ko Urriaren 22a].



Eredu berri horren ondorioak ondokoak dira: Lehena: ereduak emantzipazioaren ohiko eredu (lana-etxebizitza-hezkuntza) zein norberaren autonomiarena (heldutasun psikologikoa, emozionala, soziala...) biltzen dituela bere baitan; Bigarrena: autonomia/emantzipaziorako gazte bakoitzak aukeratzen duen ibilbide-orria desberdina dela erritmoari eta helburuari dagokionez.

*Ondorengo ataletan, autonomia-burujabetzearen alorreko berariazko zerbitzuak eskaintzen dituzten hiru esperientzia aurkeztuko ditugu. Zaragozako Gazteen Burujabetzearen Udal Bulegoa, Kataluniako Xarxa Nacional d'Emancipació Jove eta Gazteen Burujabetzaren Estatuko Bulego Birtuala.*

## ZARAGOZAKO GAZTEAK EMANTZIPATZEKO UDAL BULEGOA

Zaragozako Gazteak Emantzipatzeko Udal Bulegoa gogoeta baten, aukeraren eta borondate politikoaren ondorioa izan da. Zaragozako Udalak III. Gazte Planerako egindako azterketa soziologiko berrienean, gazteek burujabetzerakoan egiten dituzten ibilbideen ezaugarriak nabarmendu dituzte, baita prozesu hori bermatu ahal izateko zerbitzu publikoak edukitzeko beharra ere.

Zaragozako Udaleko Gazteak Emantzipatzeko Udal Bulegoak *justifikazioa eta balio erantsia* dauka martxan dauden lan-orientabiderako gainerako baliabideen aurrean, orientabide eta laneratze soiletik *harago* joan nahi duelako. Burujabetze proiektu indibidualak eraikitze laguntza ematea *eta horien segimendua egitea dira bere balio bereizgarriak*. Gazteei *aktiboki entzuteko* eta burujabetze estrategia arrakastatsuak sortzen *laguntzeko egitura berriak* behar dira eta hori da bulegoaren zeregina.

Gainera, *burujabetze prozesua ez da lehenengo lana eta lehenengo etxebizitza lortzean amaitzen; ikusi dugun bezala, "urratsez urratseko hurbilketa" prozesu ireki eta luzea da*. Prozesu horretarako bi *euskarri* behar dira: motibazioari eustea eta, aldaketa arriskuaren aurrean, bat-batean egokitzeko gaitasuna. Ondorioz, lan eta etxebizitza zerbitzuez gain, kontuan hartu beharreko beste zerbitzu berri batzuk sortu behar dira. Ondoko zerbitzuek eragiten dute norbanakoaren autonomiaren garapenean: *gizarte lanetan* trebatzeko ikastaroek, norbera bere kasa konpontzeko *etxeko lanen inguruko* ikastaroek, orientabide psikologikoak, mugikortasun proposamenek, etab.

Zaragozako Udaleko Gazteak Emantzipatzeko Udal Bulegoa zerbitzu **gune** publikoa da, Gazteria Zerbitzuaren mendekoa, eta 16-35 urteko gazteei burujabetze prozesuan laguntza globala eta banakakoa ematen die, batez ere, lan eta etxebizitza alorretan. Era berean, gazteen bitartekariei, amei, aitei eta irakasleei aholkularitza ematen die. Gazteei arreta integrala emateko zerbitzua da eta ondoko funtzionamendu irizpideak izango ditu: doakoa izatea, banakakoa, espezializatua, lanbide aniztetarakoa, integratua, konfidentziala eta erabilgarria.

Udalak planteatutako **helburuak** ondoko esparruetara zuzenduta daude: gazteen autonomia garatzera; gazteek komunitateko baliabideak eskuragarri izatea sustatzera; era-

kundeen arteko eta gizarte arloko koordinazio mekanismoak hobetzera, gazteen beharrik artatzeko; eta, eskaerak bideratzera eta beharrei norbere neurriko erantzunak eskaintzera, udal zerbitzu publiko integral baten bitartez.

**Onuradun** zuzenak Zaragozako 16 eta 35 urte bitarteko gazteak dira. Zeharkako onuradunak, berriz, aita eta ama asko, baita familiako beste kide batzuk ere. Azken horiek, beraiantzako berariazko aholkularitza zerbitzuen (familiantzako aholkularitza) onuradun izango dira, edo, familiako gazte erabiltzaileek lortutako onuren zeharkako eraginaren onuradun.

### Aurrez aurreko zerbitzuak:

**1- Arreta eta aholkularitza zerbitzua:** Gazteak Emantzipatzeko Bulegoak burujabetzen ahalegintzen ari diren eta horretarako oztopo pertsonalak edo familiarak dituzten gazte guztientzako zerbitzua ematen du. Zerbitzu horrek hiru *funtzio* dauzka:

- Burujabetze proiektuei buruzko arreta eta aholkularitza.
- Aholkularitza psiko-emozionala.
- Gazteei beren helburua lortzea eragozten dieten zailtasunak gainditzeko gaitasunez eta estrategiez jabetzen laguntzea. Helburu honetaz ari gara, hain zuzen: etxetik joatea.

Gainera, *gazteentzako eta haien familiantzako berariazko aholkularitza zerbitzua ematen du*. Zerbitzu horren funtzioa ondokoa da: gurasoekiko hastura prozesu naturalean laguntzea, gazteak autonomia lortzen doazen heinean. *Ondoko lan-ildoak dauzka:* burujabetze kontuetan arazoak dituzten familiei arreta ematea; hirian dauden baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea; familia bakoitzarekin azterketa pertsonala egin ondoren, orientabidea ematea eta berariazko jarduera ildoak diseinatzea; alternatibak bilatzeko aholkularitza ematea; erabakiak hartzea eta ekintza plan bat egitea; eta, aholkularitza psiko-emozionala.

**2.- Lan orientabiderako eta aholkularitza juridiko-laboralerako zerbitzua:** Gazteen Burujabetzearen Bulegoak lan bila dabiltzan edo lana hobetu nahi duten gazte guztientzako zerbitzua ematen du. Lan bila dabiltzan gazteei laguntza ematea da zerbitzu horren helburua. Horretarako, prozesu osoan motibatzen ditu eta lana aktiboki bilatzeko baliabideak ematen dizkie:

- Curriculumak eta aurkezpen gutunak egin laguntzen die.
- Hautaketa prozesuak gainditzeko teknikak erakusten dizkie.
- Lana lortzeko bideei eta hirian dauden baliabideei buruzko informazioa ematen die.
- Orientabidea ematen die eta lan ibilbideak diseinatzen ditu, lana lortzeko eta norberak bere kasa lan egiteko.
- Lan-poltsan sartzen ditu.

- Aholkularitza juridiko-laborala ematen die.
- Banakako segimendua egin eta tutore gisa jarduten du.

**Hauek dira** lan-orientabiderako eta aholkularitza juridiko-laboralerako zerbitzuaren lan-ildoak:

- **Heziketa saioak:** nomen kalkulua, gazteen arrisku psikosozialak, oinarrizko lan legedia...), sindikatu nagusiekin elkarlanean.
- **Lan autonomorako eta mikroenpresak sortzeko** mikrokredituak.
- **«Lagundu zeure buruari eta lagunduko zaitugu» diru-laguntzak**, gazte ekintzaileen enpresa proiektuak indartzeko edo zabaltzeko.
- **Bulegoaren lan-poltsa** propioa.

**3.- Etxebizitzaren inguruko aholkularitza zerbitzua:** Gazteen Burujabetzearen Bulegoak bizileku propioa lortu nahi duten gazte guztientzako zerbitzua ematen du. Bulegoak hiru zerbitzu ematen ditu.

- **Etxebizitza-poltsa:** gazteen eta jabeen arteko bitartekaritza zerbitzua da, etxebizitzak alokatzerakoan bi aldeek berme egokiak izan ditzaten. Halaber, etxebizitza erosi edo alokatzerakoan sortzen diren zalantzei edo arazoei buruzko informazioa, aholkularitza eta orientabidea ematen ditu.
- **Alokairuzko etxebizitzetarako diru-laguntzak:** gazteak familiaren etxetik joatea sustatzeko programa da eta, horretarako, etxebizitzaren alokairu kostuaren zati bat ordaintzen die.
- **Hipoteka Gaztea:** finantza produktua da, gazteei ohiko bizilekua eskuratzen laguntzeko.

### **Zerbitzu birtuala: Webloga: <http://zaragozaciudad.net/emancipacion>**

Hiru ataletan banatuta dago gunea: arreta eta aholkularitza, lana eta etxebizitza. Gazte guztiek har dezakete parte eta, izenaz gain, helbidea bakarrik eskatzen zaie. Artikulu eta iruzkin berri guztiak posta elektronikoz jasotzen ditu Bulegoak, argitaratu aurretik balioz-tatzeko. Bulegoak artikuluak ikusgai jartzen ditu, bai eduki berriei buruz informatzeko, bai erabiltzaileen iruzkinak sustatzeko eta bultzatzeko. Era askotako galderak eta ekarpenak egiten dituzte. Horren erakusle dira weblogean jasotako ondoko esaldiak:

*Kaixo, duela hiru urte alokatu nuen etxeko garbigailua hondatu egin zitzaidan orain dela hilabete bat. Jabeari deitu nion eta esan zidan kontratuaren arabera neuk hartu behar nituela gastuak neure gain, eta halaxe egin nuen. Teknikariak esan zidan modelo hori duela 16 urtekoa zela... Eta arazoak segidan etortzen direnez, gutxi balitz bezala, orain, ur beroaren termo elektrikoa hondatu zait, horrek ere nahikotxo urte zituela!!! Neuk hartu behar al dut neure gain konponketaren gastua??? Eskerrik asko*

### Zaragozako Gazteen Burujabetzerako Udal Bulegora (OMEJ) jotzeko bideak:

- Aurrez aurre: San Carlos 4 plaza, beheko solairua (Morlanes etxea)
- Telefonoa: 976 72 18 77- 976 72 18 76- 976 72 18 27
- e-maila: [emancipacionjoven@zaragoza.es](mailto:emancipacionjoven@zaragoza.es)
- Webgunea: [www.zaragoza.es/juventud](http://www.zaragoza.es/juventud)
- Webloga: <http://zaragozaciudad.net/emancipacion>

## XARXA NACIONAL D'EMANCIPACIO JUVENIL

Kataluniako Xarxa d'Emancipació Juvenil sarea lehendik zeuden bulegoak eta berriki sortuak sare baten bitartez lotzeko asmoz sortu dute. Haren helburua lurralde osoan 60 *Oficines Joves* edo gazte bulego izatea da. Ekimenaren asmoa gazteek emantzipazioarekin loturiko zerbitzu guztiak gune bakar baten biltzeko eginiko eskaerari erantzutea da. Sare hau Kataluniako hamar eskualdetan baino gehiagotan ezarri da eta gazteriarren arloan eskumenak dituzten hainbat erakunderen, Kataluniako Gobernuaren Gazteria Idazkaritza eta Agentziaren eta Udalen arteko koordinazio administratiboa da eskualdeko edo tokiko bulegoak (udalerrri handiak) biltzen dituen sarea hedatzen ari dena.

Historikoki, Kataluniako tokiko korporazioetako zenbait gazteria sail (esaterako L'Hospitalet) aitzindariak izan dira arreta eta segimendu pertsonalizatuko zerbitzuak ezartzen. Haien inspirazioa, era berean, Frantziatik zetorren, *Missions Locales et Permanences d'Accueil, d'Information et d'Orientalion* (PAIO) izenekoetatik, hain zuzen. Eredu honek Oficinas Joves d'Emancipació berrien proposamen berritzailea zehazten lagundu du. Eredu gisa Gironan ireki berri duten Oficina Jove bulegoa hartuko dugu. Hura sortzeko hiri horretako gazteentzako informazio bulego zaharra berritu zuten, baina orain, haren irismena handiagoa da eta tokiko eremutik eskualdekora pasa da.

### L'Estació Espai Jove d'Emancipació del Gironés:

Espai Jove d'Emancipació izeneko zerbitzuak eskaintzen dituen gunea da eta bertan *informazioa, orientazioa, aholkularitza eta prestakuntza* jasoko ditugu, gazteak emantzipatzeko prozesuan agertzen diren zalantza, arazo eta premiekin lotuak. Emantzipazio eta norberaren autonomia prozesuan lagun dezaketen arlo guztietan arreta eta segimendu pertsonalizatuko zerbitzuak eskaintzen ditu. Zerbitzu horien helburua gazteen eskaerei eta premiei erantzutea da.

Emantzipazio bulegoa 16 eta 35 urte bitarteko pertsonari eskainitako zerbitzu publikoa da. Haren ezaugarri nagusiak doakoa, espezializatua (arlotan bakoitzean adituak diren teknikariak), pertsonala (pertsonari jarraipen indibidualizatua egiten diete) eta konfidentziala (gaiak eta datuak konfidentzialtasunak dira guztiz) izatea dira. Bertara joaten direnek

hainbat zerbitzu biltzen dituen laguntza baliatu ahal izango dute edo zerbitzu bakoitza bereizita erabili. Zerbitzuen eskaintza aldakorra da gazte bakoitzaren emantzipazio/autonomia prozesuan antzemandako premien arabera. Bulego horietan gehien erabiltzen diren zerbitzu arloak honako hauek dira: prestakuntza, laneko okupazioa, etxebizitza, osasuna, mugikortasuna eta garraioa, eta kontsumoa. Guzti-guztiak modu presentzialean egiten dira bulegoetan eta berritasun gisa internet bidez ere hasi dira egiten. Arlo bakoitzak programa eta jarduera ugari gauzatzen ditu. Horregatik, kasu gehienetan izendatu baino ez ditugu egingo.

Dena dela, tarte handiagoa eskainiko diegu gure lurraldean hain ohikoak ez diren gaiei eta Kataluniako Gazteria Idazkaritzak bere web orritik eskaintzen duen online aholkularitza zerbitzu berriari.

**1.- Oficina Jove de Educació:** Edozein ikasketa arauturi (batxilergoa, prestakuntza-zikloak, unibertsitateko ikasketak), beste goi-mailako ikasketei (masterrak, graduondokoak), atzerriko prestakuntzari, hizkuntzei, informatikari, teknologia berriei, oposaketei eta abarri buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzen du.

**2.- Oficina Jove de Treball:** Gazteak lan munduan sartzea errazteko eta haien laneko baldintzak zaintzeko bereziki pentsaturiko zerbitzua da. Zerbitzua 35 urtera arteko gazteentzako da. Honako hauek dira zerbitzuak:

- Laneko aholkularitza
- Atzerrian lan egitea
- Autoenplegua
- Lan burtsa
- Lan bilaketa intentsiboa neurrira eginiko orientazioarekin

### **3.- Oficina Jove de Habitatge:**

**Borsa Jove d'Habitatge:** zerbitzu honen helburua gazteak (18-35 urte) eta etxebizitza alokatu nahi duten jabeak harremanetan jartzea da, baldintza onetan.

- **Alokatzeko laguntzak**
  - *LLoger just:* 2005. urtetik abian den zerbitzua da eta Katalunian bizi diren 18 urtetik 35 urtera arteko gazteei dago zuzenduta. Zerbitzuaren helburua diru-kopuru bat ematea da alokairuaren egiazko prezioaren eta bidezko prezioaren arteko tartea betetzeko. Hilean gehienez ematen den kopurua 240 €-koa da. Laguntza urtero berritzen da eta ez dauka denbora-mugarik aurrez planteaturiko baldintzak betetzen diren bitartean.
  - *Estatuko Oinarrizko Emantzipazio Errenta*
- *Lege orientazioa eta aholkularitza.*
- *Etxebizitzarekin loturiko laguntzak eskatzeko* izena emateko puntua.
- *Etxebizitzarekin loturiko on line* aholkularitza.

**4. Oficina Jove de salut:** zeregin nagusia gazteei arreta, orientazioa, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza pertsonala eskaintzea da honako gai hauei buruz: sexu osasuna, drogen kontsumoa, elikadura jokabidearen nahasteak eta buru eta emozio nahasteak goiz antzematea, eta, oro har, arriskua dakarren edozer portaera prebenitzea. Bestalde, aholkularitza eskaintzen die gazteekin lan egiten duten profesionalei eta lan eredu bat garatu du programa eta zerbitzuen artean batera jarduteko.

**5.- Oficina Jove de drets:** Zerbitzu honen bitartez gazteek pertsona gisa dituzten eskubideak kontsultatu ahal izango dituzte. Bestalde, immigranteen eskubideei buruzko informazioa ere eskatu ahal izango dute, adibidez dokumentuak nola izapidetu (egoitzabaimena, laneko baimena, prestazioak...). Laneko eskubideei dagokienez, laneko gatazkekin eta sektore jakin batzuen funtzionamenduarekin loturiko aholkularitza eskaintzen du (pizza-banatzailleak, mezulariak...) eta lege aholkularitza kaleratzei, kontratuei, nominei, soldatei eta abarri dagokionez. Bestalde, kontsumitzaile gisa aurki ditzaketen arazoak konpontzeko lege aholkularitza ere ematen du honako gai hauetan: erosketak, alokairua, konponketak, turismoa, aseguruak, banku zerbitzuak, gasa, argia eta ura, telefonoa, instalazioak, garraioak, erreklamazioen izapidetzeak, kontsumo sistema arbitrala eta abar.

### Zortzi online aholkularitza saretik

Zerbitzua Kataluniako Gobernuko Idazkaritzaren web orritik eskaintzen da: <http://www.jove.cat> Aholkularitzak honako gai hauei buruzkoak dira: hezkuntza, lana, etxebizitza, sexualitatea eta kontrazepzioa, sexualitatea eta afektibitatea, elikadura nahasmenak, drogazaletasuna eta hiesa. Zerbitzuaren helburua webaren aurkezpen orrian bertan irakur dezakegu: *Zalantza bat duzu eta ez dakizun nork lagun zaitzakeen? Kezka bat duzu eta aholku, iradokizun edo informazio jakin bat behar duzu? Bidali zure eskaera online eta aditu batek erantzungo dizu, azkar, doan eta modu konfidentzialean. Gazteria Idazkaritzak gehien eragiten dizuten gaiei buruzko erakunde espezialistekin hitzarturiko zerbitzua da.*

Erantzuteaz arduratzen diren erakunde espezializatuek laguntza pertsonalizatua eta konfidentziala eskaintzen diete hala eskatzen duten pertsona gazteei, gehienez 72 orduko epean. Gazteei ahalik eta konfiantza eta gardentasun handiena emateko (nork erantzuten dien jakiteko) web orrian agertzen dira erakunde aholkulari guztiak.

**GAZTEAK EMANTZIPATZEKO BULEGO BIRTUALA:**

Gazteak Emantzipatzeko Bulegoak (GEB) zerbitzu publikoa dira, eta Gazteen Institutuaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren emaitza da. GEBen helburu nagusia gazteei kalitatezko lana eta etxebizitza duina lortzen laguntzea da. Horrenbestez, GEB horietan arreta, informazioa, aholkularitza, begiraletza, laguntza eta trebakuntza eskaintzen dira; bai lana lortzeko, bai gazteek etxebizitza alokairuan lortzeko.

Bulego Birtuala ([www.emancipacionjoven.es](http://www.emancipacionjoven.es)) programa honek duen erreminta berria da arestian aitatutako helburuak lortzeko. Web orria bi zatitan dago banatuta: batetik, gazteentzako enplegu zerbitzua (emplea joven) eta, bestetik, gazteentzako etxebizitza zerbitzua (vivienda joven).

**1.- EMPLEA JOVEN:** enpleguari buruzko informazio guztia aurkituko duzu.

- **Besteren konturako lana:** curriculuma prestatu, ibilbide profesionala taxutu edota Europar Batasunean zein nazioarteko erakundeetan nola lan egin jakin ahal izango duzu. Era berean, Gazte Kooperatzaileen programaren inguruko informazioa edota lan eskaintzak ere irakurri ahal izango dituzu.
- **Autoenplegua:** enpresa bat nola sortu, enpresa plan birtuala, enpresak kudeatzeko simulatzaile birtuala, laguntza eta diru-laguntza publikoak, ekintzailearen testa, negozio ideiak, liburutegi birtuala, azokak eta ekitaldiak, frankiziak eta abar aurkituko dituzu.
- **Araututako trebakuntza:** atal honetako bilatzaileak trebakuntza, lanbide heziketako zikloak, lanerako prestakuntza, unibertsitateko ikasketak eta masterrak aurkituko dituzte.
- **Laneko eskubideen aholkularitza:** alor soziolaboralerako informazioa guztia aurki dezakezu.

**2.- VIVIENDA JOVEN:** etxebizitzari buruzko informazio guztia aurkituko duzu.

- **Etxebizitza eskuratzea:** etxebizitza erostea eta alokatzea, kooperatibak, etxebizitza eskuratzeko finantzaketa, edota gai horrekin lotutako legedia eta intereseko dokumentuak.
- **Gazteentzako etxebizitza alokatzeko poltsa** (emantzipazio eta etxebizitza bulegoak): zer dira, non daude eta zer zerbitzu ematen dituzte.
- **Emantzipaziorako oinarritzko errenta:** 2008ko urtarrilaren 1ean abian ipinitako zerbitzua da, Espainiako Estatuan bizi diren 22 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie, baldin eta urtean 22.000 € gordin baino gutxiago irabazten badituzte. Laguntza hilean gehienez 210 eurokoa izango da alokairurako, 120 euro abala behar bada eta 600 euroko mailegua fidantza gisa (alokairua amaitu ostean itzultzeko). Laguntza gehienez ere lau urterako ematen dute.
- **2005-2008 aldirako Etxebizitza Plana:** gazteentzako laguntzak eta diru-laguntzak etxebizitza erosteko edota alokatzeko. Aholkularitza: Era berean, aholkularitzari eskainitako atala ere aurkituko duzu. Bertan, etxebizitzaren alorreko zalantzak erraz eta arin argitu ahal izango dituzu.

# Proposamen dokumentua:

**Nola lantzen ditugu emantzipazioa eta norberaren  
autonomia Gipuzkoan?**




Marko kontzeptuala ezarri eta esperientziak aztertu ondoren, une honetan Gipuzkoan antzematen ditugun gazteen trantsizio prozesuaren alderdi aipagarrienen erradiografia txikia egiten saiatzen ari gara.

Azken hamarkada honetan, estatistika eta txosten monografiko gehienek gazteen emantzipazio prozesua atzeratzen ari dela diote. Egoera hori ez da gure inguruan bakarrik gertatzen, kapitalismo aurreratua duten Europako beste herrialde batzuetan ere antzematen den prozesu orokortua da<sup>1</sup>. Ikusita dago gaztaroa luzatzen ari den bizitzako etapa dela, batez ere eskolatze prozesua ere luzatu egin delako, lan egoera egonkorra izateko garaia atzeratu egin delako, etxebizitza propioa izatea gero eta zailagoa delako eta bikote bizitza beranduago hasten delako.


Hiru datu esanguratsuk Euskadiko egoera deskribatzen lagun gaitzakete:

- Gazteen emantzipazio tasa % 40koa da (beren etxebizitza-unitate propioa sortu duten pertsona gazteak)<sup>2</sup>.
- Gazteen enplegu tasa % 67koa da (lanean dagoen biztanleen ehunekoa adin bereko biztanle aktiboen guztizkoaren gainean)<sup>3</sup>.

**Personas jóvenes emancipadas  
% total personas jóvenes**



**Personas jóvenes emancipadas  
Tasa de emancipación**



1. GALLAND, Olivier (1999). *Les Jeunes*. Paris: La Decouverte (5ª ed.)

2. *Espainiako Gazteen Etxebizitza Behatokia (2009)*. Euskadiko txostena- 2009ko lehen hiruhilekoa Espainiako Gaztediaren Kontseilua.

	Total	18-24 años	25-29 años	30-34 años	Hombres	Mujeres
Condiciones laborales de la población joven						
<b>Población activa</b>	360.912	73.739	126.786	160.387	187.876	173.036
% total población joven	79,2%	16,2%	27,8%	35,2%	41,2%	38,0%
Tasa de actividad <sup>(3)</sup>	79,2%	53,3%	90,1%	90,9%	81,2%	77,3%
Variación interanual	-1,29%	5,40%	-2,85%	-2,89%	-4,80%	2,83%
<b>Población ocupada</b>	305.956	52.365	106.320	147.271	160.127	145.829
% total población joven	67,2%	11,5%	23,3%	32,3%	35,2%	32,0%
Tasa de empleo <sup>(3)</sup>	67,2%	37,9%	75,6%	83,4%	69,2%	65,1%
Variación interanual	-9,26%	-12,72%	-10,09%	-7,34%	-12,51%	-5,40%

- Pertsona gazte batek orain duen soldataren ia bikoitza irabazi beharko luke kaudimen-gabezia arriskurik gabe etxebizitza libre bat erosteko<sup>4</sup>.

Población joven y vivienda

	Total	18-24 años	25-29 años	30-34 años	Hombres	Mujeres
Ingresos mínimos para adquirir una vivienda libre <sup>(6)</sup>						
Ingresos mínimos (euros anuales)	51.426,58					
Ingresos mínimos (euros mensuales)	4.285,55					
Variación interanual	-10,11%					
Diferencia con ingresos medios hogar joven	81,66%	110,07%	100,00%	74,91%	79,26%	85,29%
Diferencia con ingresos medios ppersona joven	195,82%	272,06%	202,95%	157,89%	171,55%	231,71%

Provincia	Ingresos mínimos		Variación Interanual	Diferencia con ingresos Hogar joven Persona joven	
	Anuales	Mensuales			
<b>País Vasco</b>	<b>51.426,58</b>	<b>4.285,55</b>	<b>-10,11%</b>	<b>81,66%</b>	<b>195,82%</b>
Álava	42.191,03	3.515,92	-10,68%	34,67%	119,30%
Guipúzcoa	52.587,67	4.382,31	-8,68%	82,53%	197,23%
Vizcaya	51.102,18	4.258,52	-12,95%	87,76%	205,74%

Emantzipazioaren eta autonomiaren esparruan egin beharreko esku-hartzeak nolakoa izan behar duen zehazten hasteko –betiere haurren eta gazteen sustapenari begira lehenik eta behin adierazi beharra dago eskumen publikoen eta hezkuntza, enplegu eta etxebizitza arloko baliabideen gehiengoa Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren esku dagoela.

3. Espainiako Gazteen Etxebizitza Behatokia (2009) . Euskadiko txostena- 2009ko lehen hiruhilekoa Espainiako Gaztediaren Kontseilua.  
 4. Espainiako Gazteen Etxebizitza Behatokia (2009) . Euskadiko txostena- 2009ko lehen hiruhilekoa Espainiako Gaztediaren Kontseilua.

Era berean, aintzat hartu behar da enpleguaren eta etxebizitzaren arloko udal mailako esku-hartze publikoa eskumena duten administrazio unitateen bitartez egiten dela (zerbitzuak, sailak, patronatuak edo mankomunitateak). Gazteria zerbitzuek arlo horrekin lotuta dituzten zereginak, batik bat, planteatu beharreko zenbait helburu jartzera mugatzen dira gazteei dagokienez.

Bestalde, Gipuzkoan dauden haurren eta gazteen sustapenerako zenbait zerbitzuek esperientzia dute aholkularitza, orientazio eta laguntza arloan, batez ere, osasuna, hezkuntza, mugikortasuna eta oro har norberaren autonomia garatzen duten arlo guztiekin loturiko gaitan. Baina, oro har, ez Xarxa Nacional d'Emancipació Jove de Catalunya sareak duen ikuspegi integral eta transbertsalarekin.

## **NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EMANTZIPAZIORAKO BIDEAN LAGUNTZA EMATEKO GIDALERROAK**

*Haur eta gazteria zerbitzuek autonomiaren eta emantzipazioaren arloan egiten duten lanari ikuspegi berria emateko aintzat hartu beharreko zenbait proposamen interesgarri planteatu nahi ditugu ondorio gisa.*

- Gazte etaparen luzapena esku hartzeko aukera gisa ikustea tarte horretan gazteei norberaren autonomiarekin loturiko gaitasunak emateko, emantzipazioa lortzen dutenean haiek balia ditzaten.
- Arduradun publikoak eta gizartea sentsibilizatzea gazteek jasan behar duten emantzipazio blokeoaren eta haren ondorioen inguruan.
- Gazteen autonomia/emantzipazio prozesuen egoerari buruz etengabeko diagnostikoa izatea.
- Baloreen inguruko hezkuntzaren eta trebetasun sozialak eskuratzearen bitartez norberaren autonomia lortzen laguntzen duten esku-hartze zuzeneko zerbitzuak bulztatzea (haur txokoak, gaztelekuak, udako programak...).
- Emantzipazio proiektu indibidual bat diseinatzen eta haren jarraipen pertsonalizatua egiten laguntzen duen gazteria zerbitzu espezifikoko baten balio erantsiaren inguruan hausnartzea. Zerbitzu horrek, noski, egitura berriak beharko lituzke (bulegoak) gazteak aktiboki entzuteko, haiei aholkularitza eskaintzeko eta emantzipaziorako bidean beren estrategia eraikitzen laguntzeko.
- Ideia ona izan liteke autonomiarako eta emantzipaziorako guneak gazteen premiei erantzuteko gune bakarrak –leihatila bakarra– izatea. Gune horietan gazteek norberaren autonomiarekin eta emantzipazioarekin loturiko informazioa, orientazioa, aholkularitza, heziketa eta laguntza jasoko dute: laneko okupazioa, etxebizitza, osasuna, mugikortasuna, garraioa, eskubideak, kontsumoa...
- Etxebizitza publikoen sustapeneko gazteentzako erreserbatutako moduluak ezartzeko bideak irekitzea.

- Trantsizio etxebizitzak sustatzea, kooperatiba erregimenean, baina bizi estilo berriei eta gazteen premiei egokituta.
- Zerbitzu presentzialen eta digitalen aldeko apustua egitea (gero eta garrantzi handiagoa du gazteen esparruetan). Zaragozako weblogean garaturiko arlo horretako esperientzietatik ikastea, baita Generalitatak on line egiten dituen aholkularitzetatik eta INJUVEren [www.emacipacionjoven](http://www.emacipacionjoven) web orritik ere.
- Autonomiaren/emantzipazioaren alde eginiko jardun publikoak ezagutaraztea elementu grafiko adierazgarrien bitartez.

*Zerrenda honetan gai gehiago eranstea zure esku dago. Azken finean, gure asmoa haurren eta gazteen sustapenaren eremuan lan egiten dugun eragileok hausnartzeko ideiak proposatzea baino ez da, eta arlo honetako premia aldakorrei gero eta gehiago egokitzen zaizkien politikak diseinatzen lagunduko duten eztabaidak bultzatzea.*

*Anima zaitetz eta bidali zure proposamenak honako helbide honetara:  
[e-gaztemira@gipuzkoa.net](mailto:e-gaztemira@gipuzkoa.net)*



# Tresnak

**Gaiari buruzko gehiago jakiteko...**



**L' emancipació dels joves com a qüestió social, sociològica i política.**

Casal, Joaquim – GRET [linean] XXVI Jornades: Politiques locals per l' autonomia i l' emancipació. Diputació de Barcelona. Sabadell, 2008ko maiatzaren 21a < <http://www.diba.es/joventut/fitxers/2008joaquimcasal.pdf> > [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]

**De los itinerarios lineales a las trayectorias yo-yo.** López Blasco, Andreu. Ponencia presentada en la Conferencia Europea para Investigadores y Técnicos «Jóvenes y políticas de transición en Europa».

[linean]  
<[http://www20.gencat.cat/docs/Joventut/Documents/Arxiu/EGRIS\\_Lopez.doc](http://www20.gencat.cat/docs/Joventut/Documents/Arxiu/EGRIS_Lopez.doc) >. Barcelona: Generalitat de Catalunya, 2009. [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]



**Emantzipazioari buruzko azterlanak linean. CENTRO DE DOCUMENTACION JUVENTUD.**

[linean] Barcelona: Generalitat de Catalunya. <<http://www20.gencat.cat/portal/site/Joventut/menuitem.cdbc7cbd8182c114f538d610b0c0e1a0/?vgnnextoid=36fddb1b2f16b010VgnVCM1000000b0c1e0aRCRD&vgnnextchannel=36fddb1b2f16b010VgnVCM1000000b0c1e0aRCRD&vgnnextfmt=detall&contentid=86da6d83f90dd010VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD>>

Barcelona: Generalitat de Catalunya, 2009. [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]

**Online aholkularitza saretik.** [linean] Barcelona: Generalitat de Catalunya. <<http://www20.gencat.cat/portal/site/JoveCat/menuitem.f598eea3d2e90df812d7ed42b0c0e1a0/?vgnnextoid=67f4a476ee7a5110VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD&vgnnextchannel=67f4a476ee7a5110VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD&vgnnextfmt=default> > Barcelona: Generalitat de Catalunya, 2009. [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]



**Etxebizitzari buruzko monografikoa EGK aldizkarian .** [linean] Ahotik At. <http://www.egk.org/files/AhotikAt2.pdf> . [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]

**Etxebizitzari buruzko informazioa.Tolosako Gazte Informazio Bulegoa.**

[linean] **Tolosa: Tolosako Udala. 2009.** [http://www.tolosakoudala.net/eu/ficheros/9\\_3750eu.pdf](http://www.tolosakoudala.net/eu/ficheros/9_3750eu.pdf) . [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]



**Gazteentzako etxebizitza alokatzeko laguntzak 2009.** [linean] Durango: Durangoko Udala . 2009. <[http://www.durango-udala.net/portal/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4459\\_1.pdf](http://www.durango-udala.net/portal/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4459_1.pdf) > [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]

**BIZILAGUN. Gazteen emantzipaziorako errenta- Gipuzkoa.** [linean]

Donostia: Eusko Jaurlaritza. <<http://www.ej-gv.net/etxebide/html/topics/bizilagun/rentabasica.html>>. [kontsulta: 2009ko urriaren 22a]





## mesanotxean bilduma

- 01.** Gazteak eta arriskuaren kudeaketa.
- 02.** Emantzipazioa eta norberaren autonomia.



Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social  
Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Infancia y Juventud



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**